



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2023ko irailaren 5ko bilkura

Bi mila eta hogeita hiruko irailaren 5ean, arratseko zazpiak eta erditan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, IDIART Claudine, GOICOECHEA Iñaki.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : LEKUMBERRY Xantxo.

Deialdiaren eguna : 2023ko agorrilaren 31

Afitxatze eguna : 2023ko agorrilaren 31

1. ERABAKIA: GURE GAIN ELKARTEAN IZENA EMATEA ETA EKARPEN BATEN ISURTZEA (7.10 nomenklatura – Beste)

Auzapezak azaldu du honako erabakiak 2022ko irailaren 8koa indargabetzen eta ordeztzen duela, zeina Baigura Mendi Elkartearen lanpostu baten atxikitzeak diru isurtzeari buruzkoa baitzen.

Auzapezak adierazi du Gure Gain elkartearen lehentasunezko xedea dela laborantzari loturiko proiektuak abiaraztea, sustatzea eta laguntzea, honako helburuen erdiesteko:

- Laborantza ekonomiaren atxikitzea eta garatzea
- Artzaintza eta laborantza guneen balioan ematea
- Laborantzaren eta beste jardueren arteko elkarbizitza,

eta guzi hori Bidarra, Heleta, Irisarri, Luhuso, Makea, Lekorpe, Ortzaize eta Arrosa herrien eremuan.

Helburu horien gauzatzeko, elkarteak bere kabuz edo beste egitura batzuekin lankidetzan, ekintza oro egiten ahalko du, besteak beste mugaz gaindiko harremanen bidez. Behar diren giza, teknika eta diru baliabide guztiak ezarriko ditu helburuen betetzeko.

Auzapezaren azalpenak entzunik, Herri Biltzarrak,

- ERABAKI DU, GURE GAIN elkarteari urtero 1 900 €ko dirulaguntza ematea, 2023, 2024 eta 2025 urteentzat,
- ERABAKI DU, 100 €ko urtesaria ordaintzea 2023-2024 eta 2025 urteentzat, eta gastu hori 6281 – Orotariko partehartzeak (bazkidetzak) artikulura esleitzea,
- AGINDU DIO, Auzapezari, gai horri buruzko agiri oro izenpetzea.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 12

Balitzko boz kopurua : 12

ALDE : 12

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2023ko irailaren 5ean

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2023/09/08an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/09/08an.